

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako sindikatuek mahai negoziatzailea deitu dugu Kristau-Eskola eta AICE-IZEA patronalek ez baitute deitu hala eskatu genien arren

Greba amaierako akordioa hitzarmenean txertatzeko garaia da!

Dakizuen bezala, EAEko Auzitegi Nagusiak Greba Amaierako Akordioren alde emandako epaia ezagutu ondoren (epaiketa urriaren 15ean izan zen eta epaia urriaren 30ean jakinarazi zitzaigun), sindikatuok negoziazio mahaia deitzeko eskaera helarazi genien Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei.

Azaroaren 8an helarazi genien eskaera. Aste bete baino gehiago pasata patronalek mahairik ez dute deitu ordea. Horregatik, sindikatuok deitu behar izan dugu negoziazio mahaia. Azaroaren 26rako egin diegu deia Lan Harremanen kontseiluaren bitartez. Patronalek azaroaren 26an ezinezkoa dutela eta abenduaren 3ra arte atzeratu dute mahai negoziatzailea.

Gogoratu behar dugu Greba Amaierako Akordioak espreski jasotzen badu ere bere edukiak hitzarmen batean jaso behar direla, oraindik ez daukagula 2022-2024 Hitzarmenik. Patronalak prozesu osoan zehar fede txar nabaria eta akordioa betetzeko eta hitzarmena sinatzeko borondate falta nabaria zein etengabeko atzerapenerako joera erakusten ari dira.

Sindikatuok mahaira hitzarmenerako proposamen serio bat ekartzeko eskatu diegu espreski. Eta mahai aurretik proposamen bat bidaltzea litzateke egokiena.

Ez dago inolako justifikaziorik Greba Amaierako Akordioan jasotakoa bere osotasunean ez betetzeko, ez eta akordioan jasotako edukiak adostutako baldintzetan hitzarmen batean ez jasotzeko ere. Azaroaren 19an elkarretaratzeak egin ditugu eskoletan akordioko edukiak jasoko dituen hitzarmena eskatuz.

Hurrengo mahaira begira ez badago hitzarmenerako proposamen seriorik patronalen aldetik, mobilizazio dinamikarekin jarraituko dugu!

2024Ko azaroaren 21ean



Los sindicatos de los centros educativos de Iniciativa Social hemos convocado la mesa negociadora porque las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA no la han convocado a pesar de haberselo solicitado

iEs hora de incorporar al convenio el acuerdo de fin de huelga!

Como sabéis, tras conocer la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco que avala el Acuerdo de Fin de Huelga (el juicio se celebró el 15 de octubre y la sentencia fue notificada el 30 de octubre), los sindicatos trasladamos a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA la petición de convocar la mesa negociadora.

Les trasladamos la petición el 8 de noviembre. Más de una semana después las patronales no han convocado ninguna mesa. Por eso los sindicatos hemos tenido que convocar la mesa de negociación. Les hemos convocado para el 26 de noviembre a través del Consejo de Relaciones Laborales. Las patronales han aplazado la mesa negociadora hasta el 3 de diciembre por problemas de agenda.

Debemos recordar que si bien el Acuerdo de Fin de Huelga recoge expresamente que sus contenidos deben recogerse en un convenio, aún no tenemos un Convenio 2022-2024. Las patronales están mostrando a lo largo de todo el proceso una evidente mala fe y una evidente falta de voluntad para cumplir el acuerdo y firmar el convenio, así como una tendencia a un retraso constante.

Los sindicatos les hemos pedido expresamente que traigan a la mesa una propuesta seria para el convenio. Y lo serio sería enviar una propuesta antes de la mesa.

No hay justificación alguna para no cumplir en su integridad lo recogido en el Acuerdo de Fin de Huelga, ni para que los contenidos que recoge no se trasladen al convenio en los términos pactados. El 19 de noviembre hemos realizado concentraciones en las escuelas pidiendo un convenio que recoja los contenidos del acuerdo.

Si de cara a la siguiente mesa no hay una propuesta seria de convenio por parte de las patronales, iseguiremos con la dinámica de movilización!

21 de noviembre de 2024

